

# IKASLEENTZAKO

## UDAL JARDUEREN KATALOGOA / 2026






DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

# IKASLEENTZAKO

## UDAL JARDUEREN KATALOGOA / 2026



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

**Donostiako ikastetxeetako zuzendari agurgarriak,**

Atsegin handiz bidaltzen dizuegu Donostiako Udaleko sailek udalerriko ikastetxeen esku jartzen dituzten hezkuntza-jardueren katalogoa.

Dokumentu hau laguntza- eta orientazio-tresna gisa sortu da, eta ikasleen prestakuntza osatzeko eta aberasteko proposamen multzoa jasotzen du; haurtzarotik helduarora bitartean herritarren garapen pertsonala, soziala eta zibikoa bultzatzeko, hezkuntza integralarekin dugun konpromisoarekin bat etorriz.

Jarduerak honako arlo hauetan egituratzen dira:

**Hezkidetza:** Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra sustatu nahi da, genero-indarkeriari aurrea hartu eta errespetuan, aniztasunean eta bizikidetzan oinarritutako balioetan heziz. Hezkuntza eta gizarte arloetan berdintasunezko harremanak sustatzea da helburua.

**Hiritartasuna:** Parte-hartze aktiboa, pentsamendu kritikoa eta balio demokratikoekiko, giza eskubideekiko eta bizikidetzarekiko konpromisoa indartzeko proposamenak dira, herritar arduratsuak eta ingurunearekin konprometituak sustatuz.

**Kultura:** Ikasleak gure hiriko kultura-, arte- eta hizkuntza-ondarera hurbiltzeko jarduerak biltzen dira. Ingurunea, sormena, sentsibilitate artistikoa eta identitatearen eta kultura-aniztasunaren ezagutza aberastuz.

**Osasuna eta ingurumena:** Bizi-ohitura osasungarriak eta iraunkorrak sustatzera bideratutako programak dira eta ingurune naturala babesteari, kontsumo arduratsuari eta ingurumena zaintzeari buruzko kontzientziazioa sustatzen dituzte; horiek baitira egungo eta etorkizuneko ongizatearen funtsezko zutabeak.

Ziur gaude Udalaren eta ikastetxeen arteko lankidetza funtsezkoa dela ikasleei kalitatezko hezkuntza eskaintzeko; horregatik, katalogoko proposamenak arretaz kontsultatu eta dagokien sailekin harremanetan jartzera animatzen zaituztegu, zuen ikastetxeen beharretara hobekien egokitzen diren jarduerak planifikatzeko.

Aldez aurretik zuen arreta eta laguntzagatik eskerrak emanez, jaso ezazue agur bero bat.

**Iñigo Garcia Villanueva**
Aniztasuna, Inklusioa eta Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria

**Katalogo honen mekanika erabiltzaile nagusiarengan, hau da, irakasleengan pentsatuz sortu da, ikasleen prestakuntza aberasteko. Kolorea eta gaia bezalako elementuen bidez, edukia eskuragarriago eta esanguratsuago egitea bilatzen dugu.**

**Koloreak gida dira, eta irakasleei lagunduko die ikasleen bizitzako etapa bakoitzean.** Berdeak HH irudikatzen du, aurkikuntzaren eta jolasaren etapa zirraragarri hori. LH adierazten du laranjak, eta hor aztertzen dira lehen ikaskuntzak. Gorriak DBHkoak irudikatzen ditu, non hazkunde eta aldaketa garaia gertatzen den. Moreak Batxillergoko etapa energiaz, ametsez eta ageriko aldaketaz betea irudikatzen du. Eta, azkenik, horiak heldutasuna adierazten du, gogoetarako eta osotasunerako etapa.

HAUR HEZKUNTZA

LEHEN HEZKUNTZA

DBH

BATXILERGOA

HELDUAK

**Jarduerak lau gai nagusitan sailkatzen dira, eta gaika antolatzeak gidatu dezake jardueren aukeraketa.** Hezkidetzak haurtzarotik generoen arteko berdintasuna eta elkarlana sustatzea du ardatz. Hiritartasunak parte-hartze aktiboa eta balio demokratikoak sustatzen dituzten jarduerak hartzen ditu. Kulturak tradizioak, arteak eta aniztasunak lantzen dituzten esperientziak biltzen ditu. Eta, azkenik, osasunari eta ingurumenari dagokienez, norberaren ongizaterako eta ingurunearen jasangarritasunerako funtsezkoak diren ekimenak biltzen dira.

HEZKIDETZA

HIRITARTASUNA

KULTURA

OSASUNA ETA INGURUMENA

# AURKIBIDEA

## Hezkuntza


Zure Hiria Zaintzen ........ 12
Bizikidetza lantzen ........ 13
"Neska eta mutil, elkarrengandik hurbil" -Sexu hezkuntza- ........ 14
Ikus-entzunezko ereduak eta sexualitatearen eraikuntza kritikoa lantzeko sexu-heziketa saioak (mitoetatik errealitatera) ........ 15
Aniztasunaren haziak ........ 16
Botere harremanak ........ 17
"Mapandreak" gida didaktikoa ........ 18
Oldarraldi feministaren prebentziorako lanketa ........ 19
Eskola Kontzertuak ........ 20
Patio irekiak, plan onean........ 21


## Gazteria


Indarkeria matxistak nerabezaroan Jardunaldia ........ 22
Gazteen Antzerki Topaketa ........ 23


## Giza Eskubideak


Artea eta Giza Eskubideak, haur eta gazteen edizioa ........ 24
Bisita gidatuak ........ 25
EHUko Donostiako Giza eskubideen ikastaroak ........ 26


## Kultur Aniztasuna


Familiak Bidelagun. Kulturarteko bizikidetza eskola eremuan ... 27


## Gizarte Ekintza


Detekzio eta Eskuhartze Goiztiar Programa ........ 28


## Euskara Zerbitzua


Bigarren Hezkuntzako Euskara Batzordeen topaketak ........ 29
Euskararen eguna: Gazteak antzerkira ........ 30
Euskarazko produktuen gida ........ 31
Gu ere antzezle ........ 32
Gu ere bertsotan ........ 33
Koldo Mitxelena literatura lehiaketa ........ 34
Ongi etorri DBHra ........ 35
Xare ........ 36

**Donostia Kultura**


• DK Antzerki Unitatea

Eskolatik Antzokira ........ 37

• DK Zine Unitatea

Euskara zinema aretoetara ........ 38

Giza Eskubideen Zinemaldia - Ikastetxeentzako filmak ........ 39

• DK San Telmo Museoa

San Telmo Museoko hezkuntza-eskaintza ........ 40

• DK Haur liburutegi Nagusia

Bisita gidatuak liburutegian ........ 41

Irakurle gazteak (Liburuka) ........ 42

Motxila txikia (Liburuka) ........ 43

Dokumentazio gunera bisita profesionalak ........ 44

Eskola Irakurketa Mintegia irakasleentzako ........ 45

Mailegu Kolektiboa erakundeei ........ 46

Bisita gidatuak Urgull liburutegira ........ 47

Irakurketa Haur Liburutegi Nagusian ........ 48

• DK Lugaritz Kultur Etxea

Euskara Zinema Aretoetara Lugaritz Kultur Etxean ........ 49

• DK Larrotxene Kultur Etxea

Irakurketa Larrotxene liburutegian ........ 50

Intxaurdok ........ 51

• DK Intxaurrondo Kultur Etxea

Irakurketa Intxaurrondo liburutegian ........ 52

Erakustaretora bisita eta tailerra ........ 53

Etxekolanda ........ 54

• DK Bisita gidatua liburutegira

DK Lugaritz Kultur Etxea ........ 55

DK Casares-Tomasene Kultur Etxea ........ 55

DK Larratxo Kultur Etxea ........ 55

DK Okendo Kultur Etxea ........ 55

DK Loiola Kultur Etxea ........ 55

DK Aiete Kultur Etxea ........ 55

DK Ernest Lluch Kultur Etxea ........ 55

DK Egia Kultur Etxea ........ 55

DK Intxaurrondo Kultur Etxea ........ 55

**Donostiako Sustapena**

Donostia Innovation Challenge ........ 56

**Donostia Kirola**

Igeriketa Kanpaina ........ 57

**Osasuna eta Ingurumena**

BBB Ikastetxeetan " bizitza bat salbatzea zure esku dago" ........ 58
Osasun Digitala ........ 59
Substantziekin loturiko adikzioen prebentzioa ........ 60
Zeuk Aukeratu. Gazteen osasun mentala zaintzeko programa ... 61

• Cristina Enea Fundazioa

Donostiako eskola baratze sarea ........ 62
Eskolan konposta ........ 63
Etxekolanda ........ 64
ONdakin ........ 65
Cristina Eneako hezkuntza eskaintza ........ 66
Uliako hezkuntza eskaintza ........ 67
Santa Klara uharteko hezkuntza eskaintza ........ 68
Planeta dantzan ........ 69
Kofradia Itsas Etxeko hezkuntza eskaintza ........ 70
Nekazal kultura eskoletara ........ 71

**Mugikortasuna**

Bide segurtasun formakuntzak ........ 72
Eskola bidea ........ 73
OINBUSA ........ 74
Oinez eskolara ........ 75
DBUS ezagutzen ........ 76
DBUSen gabonetako marrazki lehiaketa, "DBUS ETA GABONAK" .... 77

**Udaltzaingoa**

Kriminologiako ikasleen praktikarako esparrua ........ 78
Udaltzainak eta formakuntza ........ 79
Udaltzaingoaren komisaldegia ezagutu ezazu ........ 80

**Prebentzioa, Su Itzalketa eta Salbamendua**

Eskolen bisitak Suhiltzaileen Parkera ........ 81
Donostiako Suhiltzaileen parkeko ate irekien eguna ........ 82

**Donostiako Hileta Zerbitzuak, S.A. (Polloe)**

Polloeko sekretuak ........ 83



# DONOSTIAKO UDALA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

# ZURE HIRIA ZAINTZEN

## DESKRIBAPENA

Hiritartasunaren gaia lantzen da LH5 eta LH6 mailako ikasleekin eta proiektua urtero auzo batean egiten da, bi fasetan garatuz.

Lehenengo fasean unitate didaktiko bat prestatzen da ikasgelan lantzeko eta ondoren bisita gidatua eskaintzen da udaletxera.

Bigarren fasean ikasleek, ikasitakoa oinarri hartuta, marrazki bidez lantzen dute gaia eta horiek erakusketa batean erakusten dira. Hainbat sari (kolektiboak gela osoarentzat) ematen dira ikasle orok jasotzen dituztenak.

## HELBURUAK

Hainbat ekimenen bidez, herritar guztiek ulertzeko moduko informazioa eskuratzea eta parte-hartze aktiboa bultzatzea bilatzen da, ikuspegi kritiko eta erantzunkide batetik. Hezkuntza-komunitatearen garrantziaz jabetuta, ikastetxeei parte hartzeko gonbidapena egiten zaie. Proposamen honen helburua ikasleak hiriko hainbat alderditara hurbiltzea da; hala nola historia, kultura eta tokiko administrazioaren funtzionamendura.

Otsaila, martxoa, apirila eta maiatza

EGUNAK Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean eta Udaletxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

# BIZIKIDETZA LANTZEN

## DESKRIBAPENA

Harremanen bidez ikasten dugu elkarrekin bizitzen, elkar errespetatzen, norberaren ardura eta erantzukizuna jasotzen, eta adiskidetasuna eta elkartasuna lantzen. Edonola ere, berezko prozesu honetan, batzuetan gatazkak sortzen dira eta horrelako egoerei aurrea hartzen laguntzeko tresnak eskuragarri jarri nahi dira; batez ere ikaskideen arteko jazarpen kasuak ekiditeko.

## HELBURUAK

Formakuntza honen bitartez ikastetxeetan oinarrizko eskubideak, askatasuna eta bizikidetzaren printzipio nagusiak garatzeko tresna eraginkorrak eskura jarri nahi dira; eta, bide batez, partaide guztien eta bereziki ikaskideen arteko harremanetan laguntzeko baliabideak erakusten dira. Norberaren ezagutzatik abiatu eta besteak hobeto ulertzea da tailer hauen helburua, elkar errespetatuz eta erantzukizunez bizitzen ikasiz.

Ikasturtean zehar

EGUNAK Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

# "NESKA ETA MUTIL, ELKARRENGANDIK HURBIL" (SEXU HEZKUNTZA)

## DESKRIBAPENA

Ikasleen arteko zein hezitzaile-ikasle arteko elkarrizketa sustatuko da metodologia parte-hartzailea erabiliz eta jolasaren bitartez landuko dira gaiak. Ikasteko prozesua bultzatuko da dinamika jolasgarriekin eta horretarako material grafiko argia erabiliko da, hau da, ikus-entzunezkoak erabiliko dira. Konfidantzazko giroa bermatuko da, epairik gabeko galderak egiteko aukera emanez.

## HELBURUAK

Sexuatuak izatearen eta horren ondoriozko ideia orokorra eta oinarrizkoa egitea beharrezkotzat jotzen da eta baita ere gutxieneko hiztegi bat izatea sexuen gertaerak pentsatu eta adierazteko, komunikazioa erraztuz. Halaber, sexualitatea, bizikidetzarako duen potentzial handiagatik, giza izaeraren dimentsio gisa baloratzen ikastea lortu nahi da eta neska eta mutilei buruzko galderak eta erantzunak kontzeptu gisa lantzeko gaitasuna aktibatzea eta indartzea. Hau guztiagatik, elkarbizitza sustatuko da sexuen arteko ezagutza landuz.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

# IKUS-ENTZUNEZKO EREDUAK ETA SEXUALITATEAREN ERAIKUNTZA KRITIKOA LANTZEKO SEXU-HEZIKETA SAIOAK (MITOETATIK ERREALITATERA)

## DESKRIBAPENA

Tailerrak hezkuntza afektibo-sexualetik landuko dira, mito faltsuak desegiteko eta pornografiaren kontsumoaren ondorio negatiboak prebenitzeko. Adinaren arabera lanketa ezberdina izango da, honen kontsumoaren ezaugarriak aldatzen direlako. Horretarako teknika partehartzaile eta esperientzialak erabiliko dira (talde-dinamikak, role-playing eta eztabaida gidatuak) eta hausnartzera eta ikastera bultzatuko dira ikasleak, kontzeptu eta gaitasun sozioemozionalen barneratzea sustatzeko.

## HELBURUAK

Adin goiztiarretan pornografiaren esposizioa gero eta handiagoa da, eta askotan sexualitateari, harremanei eta baimenari buruzko kontzeptu ez-errealistak sortzen dira. Horrek ekar ditzake, besteak beste: itxaropen errealistak ez izatea; norberaren gorputzari eta harremanei buruzko nahasmena eta sexualitateari buruz modu osasuntsuan komunikatzeko zailtasunak. Gauzak horrela, formazio honen bidez sexualitatearen eta pornografiaren ulermen kritikoa sustatu nahi da, errespetuan, baimenean eta komunikazio osasuntsuan oinarritutako harremanak bultzatuz.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

# ANIZTASUNAREN HAZIAK

## DESKRIBAPENA

Programak bi adineko ikasleekin lan egitea proposatzen du: alde batetik, lehen hezkuntzako lehen zikloko ( LH1, 2 eta 3) gazteekin; eta, bestetik, lehen hezkuntzako helduekin, hau da 6.mailakoekin.

Izan ere, adin goiztiarretan aniztasun sexuala lantzea ezinbestekotzat jotzen da. Edonola ere, batzuekin zein besteekin, sexu aniztasunaren oinarriak lantzeko era dinamikoa eta ulergarria izango da, hau da, marrazkiak, jolasak, elkarrizketak eta ikusentzunezkoak eta berariaz gazteentzako sortutako ipuiak erabiliz

## HELBURUAK

Aniztasun sexuala zer den eta zer garrantzia duen landuko da eta arauaren barruan eta inposatutako rol horietatik kanpo desberdinak diren errealitateak baztertzeko joeraz hitz egingo da. Formakuntza honek desberdintasuna ikuspegi baikor batetik lantzen du eta horretarako haur eta gazteei eskuragarri jarritako tresnak mantentzen laguntzeko baliabideak eskaintzen ditu. Helburu nagusia sentitzeko eta izateko modu anitzak daudela ikustaraztea da, errespetuzko giroan bizikidetza sustatuz. LGTBI+ programaren baitako formazioa da.

Ikasturtean zehar

EGUNAK
Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

# BOTERE HARREMANAK

## DESKRIBAPENA

Tailer honetan, ikasgelan ematen diren egoerak identifikatzeko tresnak landuko dira eta boterea modu zabalean landuko den arren, batez ere genero ikuspegitik bideratuko da. Talde-dinamiken bidez, talde txikietan, eztabaida gidatuetan eta jarduera praktikoetan lan egingo da eta honako hau bilatuko da: pentsamendu kritikoa sustatzea; iritziak eta bizipenak adierazten laguntzea; entzute aktiboa sustatzea eta ikaskuntzarako espazio seguruak eta errespetuzkoak sortzea.

## HELBURUAK

Botere harremanak eta intersekzionalitatea zer diren ulertaraztea da helburua eta baita gazteen artean boterea zerk ematen duen identifikatzen saiatzea. Egunerokoan, edonon eta edonorekin, botere harremanak presente dauden zerbait dira, eta ikasgelan ere islatzen dira. Izan ere, pertsona batek duen boterea, pertsona horrek dituen ezaugarrien araberakoa izan ohi da (generoa, orientazio sexuala, arraza, etab.). Boterea gure baitan dugun zerbait da eta ez du zertan negatiboa izan, hau da, ondo erabiltzea da gakoa.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

# “MAPANDREAK” GIDA DIDAKTIKOA

## DESKRIBAPENA

MAPANDREAK GIDA DIDAKTIKOan hainbat gidalerro proposatzen dira, *“Mapandreak. Plazaratu, maparatu”* mapa ilustratua oinarritzat hartuta; hiria eta generoa ikuspegi kritiko eta hezitzaile batetik lantzeko. Horretarako, adinaren arabera egokitutakoak eta metodologia ezberdinen bidez landu daitezkeen hainbat jarduera diseinatu dira.

Gidak hiru eduki nagusi biltzen ditu: batetik, proiektuaren testuingurua eta oinarri kontzeptualak; bestetik, Donostiako espazio publikoan presentzia duten emakumeen inguruko biografiak eta informazioa; eta, azkenik, ikasgelan zein hirian bertan garatzeko jarduera didaktikoen proposamenak.

## HELBURUAK

Proiektu honen helburua, Donostiako ikastetxeetarako erabilgarria izango den gida didaktikoa sortzea da; Donostiako hiriko kale-izendegian oraindik ere gutxiengoa diren emakumeak ikustarazteko eta emakumeok plazaratzeko eta maparatzeko.

Gidaren helburua da ikasleei hiriaren espazio publikoa begirada kritiko eta berdinzale batetik aztertzeko tresnak eskaintzea; kale-izenak, eskulturak eta bestelako elementuak aztertuz. Proposatutako jardueren bidez, ikasleek hiriaren memoria eta genero-ikuspegia lantzeko aukera dute; ikerketa, hausnarketa eta sormenari esker.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

**OHARRA:** Gida didaktikoa Udaleko webgunea berritzen denean izango da eskuragarri.

Donostia.eus

# OLDARRALDI FEMINISTAREN PREBENTZIORAKO LANKETA

## DESKRIBAPENA

Bi ardatz nagusik zuzentzen dute lanketaren norabidea; batetik, nesken eta sexu-genero disidenteen ahalduntze, saretze eta boteretzeak; eta, bestetik, mutilek feminismoarekiko duten erreakzio negatiboaren analisia eta gatazken konponbidea.

Mutilekin saio berezitu bat egitea proposatzen da, besteak beste erreakzioak, beldurrak, mehatxuak eta emozioak analizatzeko eta hauek neutralizatzeko dinamikak burutuz; eta neska eta sexu-genero disidenteekin ahalduntzea eta boteretzea lantzea proposatzen da, feminismoan babesleku bat aurkitu dezaten. Azkenik, lanketa biltzeko helburuarekin saio elkartu bat burutuko da.

## HELBURUAK

Antifeminismoa, maskulinitate ereduak, sare sozialen eragina, incel/gimbro kulturak, genero-berdintasuna bezalako gaiak lantzearen helburua ez litzateke ideologia jakin bat inposatzea, baizik eta hezkuntza integral eta demokratikoa bermatzea. Hona hemen helburu nagusi batzuk: pentsamendu kritikoa garatzea; genero-berdintasunaren ulermen sakona sustatzea; maskulinitate eta feminitate eredu anitzak ezagutzea; errespetua eta bizikidetza demokratikoa indartzea; indarkeria eta jarrera baztertzaileen prebentzioa; identitatearen eta emozioen lanketa eta herritartasun digital arduratsua sustatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

# ESKOLA KONTZERTUAK

## DESKRIBAPENA

**Euskadiko Orkestra**rekin elkarlanean Hezkuntza Atalak bultzatutako programazioa da. Honen bidez ikasleek kalitatezko kontzertuez gozatzeko aukera dute eta irakasleek formazioa jasotzen dute. Urtez urte, Orkestrak bere ekoizpen propioak egitearen aldeko apustua egiten du, propio sortutako gidoi originalekin eta ikuskizunekin. Musiga Gela ziklo berriak lau ekoizpen sortu ditu aurten: *Musika tantak, Logelan logale, Nire ama antzara eta Arriaga bizi da.*

## HELBURUAK

Aspaldidanik erabat sustraituta dagoen programa da eta herritarrengana, oro har, eta gazteengana bereziki, musika gerturatzeko helburuarekin antolatzen da. Azken urteotan gainera, zikloak arreta berezia eskaini dio gizarteko sektore zaurgarrienei; kolektibo zaurgarrien inklusioa eta kulturarako irisgarritasuna sustatuz.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean, ORKESTRAren Miramongo egoitzan eta Kursaal Auditorioan.

4 €

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

Euskadiko Orkestra
musikagela@euskadikoorkestra.eus
943013232

# PATIO IREKIAK, PLAN ONEAN

## DESKRIBAPENA

Antolatutako jarduera motei dagokienean, jarduera fisikoko saioetan herri-jokoak, joko alternatiboak eta tradizionalak eskaintzen dira; kirol klasikoagoak eskaintzearekin batera, hala nola eskubaloia, boleibola eta saskibaloia. Ohitura osasungarriei buruzko tailerretan berriz elikadura orekatua, ongizate emozionala eta loaren garrantzia jorratu dira; eta, horrekin batera, nutrizio-hezkuntza, jarduera fisiko egokiak, kudeaketa emozionalerako teknikak eta atseden indarberritzaile bat izateko estrategiak.

## HELBURUAK

***CSAI Fundazioak eta Donostiako Udala***k haurtzaroan ohitura osasungarriak sustatzeko sortutako programa da. 2024-25 ikasturtean, Intxaurrondo Hegoa eta Herrera ikastetxeetan eskaini da. Helburua da osasuna eta ohitura osasungarriak sustatzea haurtzaroan, hain zuzen hain funtsezkotzat hartzen den aroan. Garrantzitsua da oso hezkuntza-ingurunean lan egitea, familiekin batera eta haurtzaroan ohitura osasungarriak sustatuz; haurrak modu osasungarrian haztea zailtzen duten arrakalei aurre eginez eta horretan laguntzen duten eskolaz kanpoko jardueretarako sarbidea erraztuz. Aurtengo helburua programa finkatzea da.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskolaz kanpo orduetan

Ikastetxeko patioan

Doan

Aitziber Aranburu eta Ane Osa
hezkuntza@donostia.eus
943482803

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Gazteria

# INDARKERIA MATXISTAK NERABEZAROAN JARDUNALDIA

## DESKRIBAPENA

2017tik Indarkeria matxista nerabezaroan jardunaldia antolatzen ari gara, Donostia Gazteria eta Berdintasun Sailak elkarlanean.

Haur, nerabe eta gazteekin lan egiten duten profesionalei zuzendutako formazio eta hausnarketarako gune bat da. Haurrekin, nerabeekin edota gazteekin lanean edo kontaktoan dauden profesionalei eta eragileei zuzendua dago. Eta urte bakoitzean gai ezberdin bat lantzen da.

Azken urteetan 3 bloke nabarmen jasotzen ditu jardunaldiak: Jardunaldia bera (hitzaldiak, mahai inguruak); tailerrak; eta ekimen kultural bat (antzerkia, dantza...).

## HELBURUAK

Jardunaldia antolatzearen helburu nagusia aukera berdintasuna sustatzea eta indarkeria matxistaren prebentzioa eta esku hartzea ahalbidetzea da. Helburu zehatzagoak, berriz, indarkeria matxistarekiko nerabeen eta gazteen errealitatea zein den ezagutzea, aurre egiteko baliabideak ezagutzea eta hobekuntzak, hutsuneak eta garatu beharrekoak identifikatzea.

Urria, azaroa

EGUNAK
Astean zehar

Goizez

Intxaurrondo Kultur Etxean
(aldaketak egon daitezke).

Doan

Miren Mancisidor
miren_mancisidor@donostia.eus
943481396

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Gazteria

# GAZTEEN ANTZERKI TOPAKETA

## DESKRIBAPENA

Urtero egiten den antzerki topaketa bat da. Deialdian parte hartu ahal izateko, taldeek honako baldintzak bete beharko dituzte:

- Talde ez profesionala izatea.
- Aktoreen adina 14 eta 30 urte artekoa izatea, biak barne.
- Antzezlanak euskaraz, zein gaztelaniaz izan daitezke.
- Aurkeztuko diren antzezlanek aldez aurretik beharrezko autore eskubideak eskuratuak izan beharko dituzte. (Taldearen betebeharra izango da).
- Antzezlanek ezin izango dute 90 minutu baino gehiago iraun eta, gutxienez, 30 minutukoak izan beharko dute.

## HELBURUAK

Antzerki Topaketaren helburua gazteak antzerkiarekin harremanetan jartzea da, bai antzezle, bai sortzaile moduan (agertokien gainean edo atzean), eta baita ikusle moduan ere, era horretan antzerkira joateko ohitura bultzatuz eta kultur ekitaldi horiekin gozatzea sustatuz.

Euskarazko sorkuntza sustatzea ere badu helburu ekimen honek, gazteei euskaraz gozatzeko aukerak zabalduz.

Beraz, lau helburu ditu: ludikoa, pedagogikoa, kultur ekintzak bultzatzea eta euskarazko sorkuntza sustatzea.

Maiatza eta ekaina.
Izena emateko epea Otsaila-Martxoa

EGUNAK
Astelehenetik larunbatera

Arratsaldez

Hiriko antzokietan

Doan (emanaldietarako sarrera 3€)

Leire Orella
leire_orella@donostia.eus
943483373

# ARTE ETA GIZA ESKUBIDEAK HAUR ETA GAZTEEN EDIZIOA

## DESKRIBAPENA

Jarduera hau sentsibilizazio jarduera bat da, hiriko gainerako hezkuntza eragileekin batera hiriko ikasleengan gizabidea, bizikidetasuna, askatasuna, tolerantzia eta lankidetzaren baloreak zabaldu eta sustatzeko, ikasleek bide batez, giza eskubideak ezagutzen, ulertzen eta babesten parte har dezaten.

Modu honetan, Donostiako Udalak ikastetxeei, haurtxokoei, gaztelekuei, bestelako elkarteei eta hiritar guztiei oro har deialdia egin die jarduera honetan aktiboki elkarlanean jardun dezaten, haur eta gazteak parte hartzera animatuz eta bultzatuz, errespetuaren balioak landu ditzaten, berdintasunean oinarritutako elkarbizitzaren alde eginez.

## HELBURUAK

- Bakearen kultura zabaltzea eta Giza Eskubideen errespetua sustatzea.
- Balioen hezkuntza sustatzea (herritartasuna, bizikidetza, askatasuna, tolerantzia, lankidetza, bakea eta Giza Eskubideen errespetua) herritarren artean, batez ere, haur eta gazteen artean.
- Gazteenak Bakearen Kulturaren hedapenean eta Giza Eskubideen defentsa bultzatzen, gogoan izatea eta sentikortzea.
- Haur eta gazteek bakearen aldeko kulturaren balioak gogoan izatea elkarbizitza baketsurako, eta beraiek erabiltzen dituzten marrazketa bezalako tresnen bidez adieraztea.

Ikasturtean zehar

EGUNAK: Astelehenetik igandera

Eskola orduetan

Ikastetxean, arte akademietan, etxean

Doan

Arantza Zabala
arantza_zabala@donostia.eus
943481975

# BISITA GIDATUAK

## DESKRIBAPENA

Ibilbideak aire zabaleko bisita gidatu batzuk dira, hiriaren Memoria historikoa eta Donostiako artelanak ezagututa baloreen eta Giza Eskubideen jakinarazpena gazteen artean bermatzeko.

## HELBURUAK

Helburua orokorra da memoria historikoaren eta giza eskubideen inguruan hirian zehar dauden artelanak gazteei ezagutaraztea.

Zehazki, asmoa da, bisita gidatuak (A) egitea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei, 1936ko estatu-kolpearen ondoren Gerra Zibilean gertatutakoa eta diktadura frankistan gertatutakoa transmititzeko. Gure hirian altxamendu militar frankistan gertatutakoa hurbiletik ezagutarazteko asmoa dute, gida baten eskutik, parte-hartzaileen arabera. Izan ere, parte-hartzaileei gertaera esanguratsuenak hainbat dinamikarekin azaltzeaz gain, garai horretan Donostiako herritarrek bizi zituzten hainbat egoeratan murgilduko dira.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Kalean

Doan

Arantza Zabala
arantza_zabala@donostia.eus
943481975

Donostia.eus

Donostia.eus

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

# EHUKO DONOSTIAKO GIZA ESKUBIDEEN IKASTAROAK

## DESKRIBAPENA

Giza Eskubideen ataletik 29 urte daramatzagu diruz laguntzen ikastaro hauek egitea.

Guk ez ditugu antolatzen EHUko nazioarteko zuzenbide atalak baizik.

Giza eskubideei buruzko gaietan adituak diren akademikoak ekartzen dituzte gaurkotasuneko gaiei buruzko hitzaldiak ematera, eta ikastaroaren amaieran, ikasleen lan baten bidez, Strasburgora "René Cassinen" ikastaroetara joateko beka jaso duten pertsonak aukeratzen dituzte.

Balorazio handia dutela esaten digute EHUtik.

## HELBURUAK

Giza eskubideen egoera munduan eta munduan zabaltzeko eragin handia du. Gipuzkoako Campuseko ikasleak kontzientziatzea bere garrantziaz, hau da, gauzak eramateaz hirira egindako saio batzuek ekintza-eremu berriak ireki dituzte. Streaming bidez ematen diren ikastaroek eta Youtuben eskegitako San Telmo museoko saio batzuek, ikusgarritasun handiagoa eman diete.

Bestalde, ia hiru hamarkadako lankidetza horretan, asko trebatu dira gaur egun giza eskubideen arloan profesionalki lan egiten duten ikasleak, bat betez helburu nagusiak: sentsibilizatzea, baina, aldi berean, prestakuntza ematea.

Urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, azaroa, abendua

Osteguna

Arratsaldez

Unibertsitatean

45 €

Arantza Zabala
arantza_zabala@donostia.eus
943481975

Donostia.eus

# FAMILIAK BIDELAGUN. KULTURARTEKO BIZIKIDETZA ESKOLA EREMUETAN

## DESKRIBAPENA

Atzerritar jatorriko familiei laguntzeko udal zerbitzu bat eskaintzea, mentorian eta kulturartekotasunean oinarritutako harreman baten bidez, familia horien eskola eta gizarte eremuko harrera eta inklusioa errazteko. Halaber, familien artean kultur aniztasunari buruzko kontzientzia positiboa sortuko du kulturarteko bizikidetza eta gizarte kohesioa sustatzeko.

## HELBURUAK

Atzerritik etorri berriei oinarrizko baliabideak erakutsi, sare soziala eraikitzea eta komunitate berria ezagutu eta horretara egokitu. Gurasoak seme-alaben hezkuntza-prozesuan parte hartzea ere sustatu nahi da.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik igandera

Goizez eta arratsaldez,
eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Juan Ramon Artola
juanramon_artola@donostia.eus
943481774

# DETEKZIO ETA ESKUHARTZE GOIZTIAR

## DESKRIBAPENA

Programa, haur eta gazteekin lan zuzena egiten duten profesionalei zuzendua dago.

## HELBURUAK

Helburu nagusia da, arrisku edota babesgabetasun egoerak prebenitu, ahal den azkarren antzematen, eta ondorioz eskuhartze goiztiar bat eginez.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Karmele Azpeitia
karmele_azpeitia@donostia.eus
650600224

Idoia Andonegi
idoia_andonegi@donostia.eus
943483381

# BIGARREN HEZKUNTZAKO EUSKARA BATZORDEEN TOPAKETAK

## DESKRIBAPENA

Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetako Euskara Batzordeek hainbat dinamika eta topaketa egiten dituzte ikasturtean zehar.

Ikastetxeetan ekintzak egiten dituzte euskara eta euskal kultura sustatzeko, kanpoko dinamizatzaile baten laguntzarekin. Eta ikasturtean zehar bitan, abenduan eta apirilean parte hartzen dute ikastetxeen arteko euskara batzordeen topaketetan. Normalean Tabakaleran.

## HELBURUAK

Ikastetxeetako Euskara Batzordeak laguntzea, euskararen eta euskal kulturaren erabilera indartzea, euskara eta euskal kulturarekiko sentiberatzea sustatzea.

Urritik apirilera

Astelehenetik ostiralera

Goizez

Ekintzak ikastetxean; topaketak orain arte Tabakaleran

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# EUSKARAREN EGUNA: GAZTEAK ANTZERKIRA

## DESKRIBAPENA

Antzerki lan bat edo bi eskaintzea gazteei.

Normalean Gazteriarekin bildu eta Gazteen Antzerki Topaketa irabazi edo oso egokia izan den antzezlan bat eskaintzen zaie gazteei ikastetxearekin joateko.

## HELBURUAK

Euskara, euskal kultura eta antzerkia sustatzea. Euskara ekintza atseginekin lotzea.

Abendua

Astelehenetik ostiralera

Goizez

Antzoki Zaharra edo/eta kultur etxeetako antzokiak

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# EUSKARAZKO PRODUKTUEN GIDA

## DESKRIBAPENA

Liburuxka bat osatzen da urteko nobedadeekin adinka (12 urtetik behera).

Liburuxkan urtean argitaratutako liburuak eta jokoak jasotzen dira eta Donostiako ikastetxe guztietan banatzen da HH eta LHn.

## HELBURUAK

Euskal literatura eta euskarazko jokoen berri ematea Olentzeroko opariei begira batik bat.

Azaroa

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# GU ERE ANTZEZLE

## DESKRIBAPENA

LH6ko haurrekin antzerkia lantzeko programa.

Antzerkilari batek lantzen du antzerkia eskoletan astean behin, hiru hilabetez.

## HELBURUAK

Antzerkia oso baliabide interesgarria da hizkuntza eta haurren arteko harremanak lantzeko.

Urria, azaroa, abendua

EGUNAK Astelehenetik ostiralera

Goizez, arratsaldez

Ikastetxean

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# GU ERE BERTSOTAN

## DESKRIBAPENA

Bertsogintza, bertsozaletasuna, bat-batekotasuna eta ahozkotasuna lantzeko programa.

Bertsolari baten eskutik astero saioak dituzte eskoletan, hamabostean behin bertsolari-irakaslearekin eta tarteko astean tutorearekin.

## HELBURUAK

Ahozkotasuna, bat-batekotasuna sustatzea, eta ideiak antolatzeko teknikak lantzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizez, arratsaldez

Ikastetxean

Udalak zati bat ordaintzen du,
ikastetxeak beste bat

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# KOLDO MITXELENA LITERATURA LEHIAKETA

## DESKRIBAPENA

Literatura lehiaketa da.

Modalitateak: ipuina, mikroipuina, komikia, bertsoa eta olerkia.

Otsailean lanak jasotzeko epea eta sari banaketa maiatzean.

## HELBURUAK

Euskararen erabilera eta euskara bera lantzea eta sustatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Egun osokoa

Ikastetxean

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# ONGI ETORRI DBH-RA

## DESKRIBAPENA

DBH1era iritsiko diren gazteekin astebeteko programa berezia euskararen inguruan.

Ekialdeko barrutian egiten da eta eskolako lehen astean hainbat dinamika egiten dira goiz osoan zehar 3-4 egunez gazteak elkarren artean ezagutzeko, eta euskara komunikazio hizkuntza gisa finkatzen saiatzeko. Tutoreekin harreman estuan.

## HELBURUAK

Bigarren hezkuntzatik harrera euskaraz egitea ikasle berriei, beren artean harremanak sustatzea, euskaraz, ahal den neurrian.

Iraila

EGUNAK: Asteartetik ostiralera

Goizez

Ikastetxean

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

# XARE

## DESKRIBAPENA

Euskara eta teknologia berriak.

Euskarazko kultura digitala sustatzeko goiz oso bat ematen dute EHUn gaiaren inguruko hitzaldi eta tailerrak egiten. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) arloan euskararen erabilera sustatzea eta euskarazko kultura digitala gazteen artean ezagutzera ematea dira helburuak.

## HELBURUAK

Teknologia berriak euskaraz ere badaude eta horietan jardutea, ezagutaraztea.

Abendua

Astelehenetik ostiralera

Goizez

EHUn, Ibaetako campusean

Doan

Ana Ibabe Lujanbio
ana_ibabe@donostia.eus
943483763

udala_euskara@donostia.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

DK Antzerki Unitatea

# ESKOLATIK ANTZOKIRA

## DESKRIBAPENA

Eskolatik Antzokira Donostia Kulturak 2010.urtetik sustatutako programa didaktikoa da, ikasle gazteei zuzendua. Antzerkiaren inguruan haur eta gazteen sentikortasuna eta hezkuntza garatzea du helburu. Eskolatik antzokira haziz joan da urtetik urtera, haziz adin-tarte guztietan. Programari esker, haurrei on egingo dieten konplizitateak eta leialtasunak lortu dira. Hau eta gazteenen artean arte eszenikoen alderako maitasuna sorraraztea, zuzeneko arteen alderakoa, oso osagarri garrantzitsua iruditzen zaigu haien prestakuntza akademikoan eta pertsona gisako hezibidean. Haien eta arte eszenikoen artean sortuko den lotura bizi artean izango dute berekin.

## HELBURUAK

Proiektuak gure hiriko eta probintziako ikasleak arte eszenikoetan trebatzea du helburu.

Hezkuntza-zentroetarako bereziki diseinatutako kultura-bitartekaritza proiektu bat da hau, haur eta gazteen publikoa erdigunean jartzeko misioarekin.

Otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina

EGUNAK: Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Victoria Eugenia (eta club). Antzoki zaharra. Gazteszena

5 €

Norka Chiapusso

Iñaki Salaverria
inaki_salaberria@donostia.eus
696992593

www.donostiakultura.eus

DK Zine Unitatea

# EUSKARA ZINEMA ARETOETARA

## DESKRIBAPENA

TINKO elkarteak, Donostia Kulturarekin elkarlanean, ikasturtean eskaintzen du adin desberdinetako zenbait film. Gaiak lantzen dira ikastoletan.

Zinema emanaldiak Donostiako Antzoki Zaharrean.

## HELBURUAK

Jarduerararen helburu nagusiak dira:

- Euskara zinema aretoetan sarrarazi.
- Euskararen normalkuntza sustatzea zinemaren bitartez.
- Kalitatezko zinema eskaintzea ikasleei.
- Zinema aretoetara joateko ohitura sustatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Donostiako Antzoki Zaharrean

2 €

Jose Miguel Beltran
jmiguel_beltran@donostia.eus

www.tinkoeuskara.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

DK Zine Unitatea

# GIZA ESKUBIDEEN ZINEMALDIA IKASTETXEENTZAKO FILMAK

## DESKRIBAPENA

Hiru zinema programa eskaintzen ditugu, adinaren arabera, ikastetxeei. Emanaldi presentzialak Antzoki Zaharrean. Gida didaktikoak sortzen ditugu filmen gaiak lantzeko ikasgeletan. Emanaldi kopurua ikastolen erantzunaren menpe egoten da.

## HELBURUAK

Jardueraren helburu nagusiak dira:

- Zinema aretoetara joateko ohitura sustazea.
- Giza Eskubideak lantzea zinemaren bitartez.
- Kalitatezko zineman interesa piztea.

Apirila

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Donostiako Antzoki Zaharrean

Doan

Jose Miguel Beltran
jmiguel_beltran@donostia.eus

www.zinemaetagizaeskubideak.eus

# SAN TELMO MUSEOKO HEZKUNTZA-ESKAINTZA

## DESKRIBAPENA

San Telmo Museoak euskal gizartearen eboluzioa ezagutzeko aukera ematen du maila guztietara bideratutako hezkuntza-proposamenen bitartez.

Proposamen hauek eskola-curriculumarekin bat egiten dute eta bi jakintza-eremutan lantzen dira: Historia eta Artea.

Bisita gidatuak eta bisita-tailerrak egin daitezke.

## HELBURUAK

- Euskal gizartearen eboluzioa ezagutu historiaurretik hasita XX. mendeko 80ko. hamarkada arte.
- Ondare materiala eta immaterialarekiko sentsibilizazioa sustatu.
- Sormena eta pentsamendu kritikoa landu.
- Museoaren programazioaren parte diren zeharlerroen inguruan hausnartu: generoa, giza eskubideak, lurraldetasuna, iraunkortasuna eta kulturartekotasuna.

Ikasturtean zehar

Asteartetik ostiralera

Goizez

San Telmo Museoan

53 € (25 pertsona / talde bakoitzeko)

Miren Akordagoitia Murua
stm_erreserbak@donostia.eus
Erreserben zerbitzua 943481561
Astelehenetik ostiralera 12:00-14:00

https://www.santelmomuseoa.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

DK Haur Liburutegi Nagusia

# BISITA GIDATUAK LIBURUTEGIAN

## DESKRIBAPENA

Donostiako ikastolek eta ikastetxeek liburutegiaren bisita gidatuak eskatzen dituzte honen funtzionamendua, arauak eta abantailak ikasleek ezagutu ditzaten eta honen erabilera bultzatzeko.

Ikasleek liburutegiaren guneak ezagutuko dituzte, mailegu eta itzulketa zerbitzuaren funtzionamendua ikasiko dute, eta erabilera-arau nagusiak eta jokabide egokiak barneratuko dituzte. Gainera dokumentuak nola antolatzen diren eta bilaketa errazak nola egin azalduko zaie, jarduera amaitzeko, haurrek aukeratutako liburuak irakurriko dituzte.

## HELBURUAK

- Irakurzaletasuna sustatzea.
- Liburutegiaren oinarrizko funtzioanamendua.
- Liburutegiak eskaintzen dituen gune eta zerbitzu desberdinak identifikatzea.
- Adinari eta interesei egokitutako dokumentuak aurkitzen ikastea.
- Informazioa bilatzeko autonomia garatzea.
- Dokumentuak zaintzea eta espazio komunen arauak errespetatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehena eta ostirala

10:00-10:45 ; 11:00-11:45.
Hitzordua hartu behar da

Haur Liburutegi Nagusian,
Fermín Calbetón 25

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

https://www.donostiakultura.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

DK Haur Liburutegi Nagusia

# IRAKURLE GAZTEAK (LIBURUKA)

## DESKRIBAPENA

Liburu loteak kutxetan sartuta bidaltzen dira liburutegietatik Donostiako ikastetxetara ikasturtean zehar 3 aldiz (LH eta DBHko ikasleei).

## HELBURUAK

- Irakurzaletasuna sustatzea.
- Liburu bilduma berritzea ikastetxeetan.
- Ikastetxeekin lankidetza indartzea.

Ikasturtean zehar.
Izen-ematea irailan

EGUNAK

Astelehenetik ostiralera

Liburutegia eta ikastetxeak zabalik dauden bitartean edozein ordutegi

Ikastetxean

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

**OHARRA:** Jarduera honen eskaera geuk kudeatzen dugu eta dagokion liburutegiarekin harremanetan jartzen gara jarduera egiteko.

https://www.donostiakultura.eus

DK Haur Liburutegi Nagusia

# MOTXILA TXIKIA (LIBURUKA)

## DESKRIBAPENA

Ikasturtearen hasieran motxila txiki batzuk banatzen dira parte hartzen duten Donostiako ikastetxeetako geletan. Ikasturtean zehar haur batek liburutegitik liburu bat aukeratzen du bilduma berezi batetik eta motxilan eramaten du etxean eta ikastetxean ikusteko edo/eta irakurtzeko. Gero beste haur batek itzultzen du liburu hura liburutegira eta beste berri bat aukeratzen du, berriro bilduma berezi horretatik, eta gauza bera egiten du. Horrela gelako haur guztiak pasa arte.

## HELBURUAK

- Irakurzaletasuna sustatzea.
- Ikastetxeekin lankidetza indartzea.
- Haurrak bazkideak egitea.
- Familiek liburutegia ezagutzea.
- Irakurketaz gozatzea.

Ikasturtean zehar.
Izen-ematea irailan

Astelehenetik larunbatera (Liburutegia irekita dagoen edozein egun)

16:00-20:30 (Astelehenetik ostiralera) ; 10:00-14:00 (Larunbatetan)

Ikastetxean eta Haur Liburutegi Nagusian, Fermín Calbetón 25

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

**OHARRA:** Jarduera honen eskaera geuk kudeatzen dugu eta dagokion liburutegiarekin harremanetan jartzen gara jarduera egiteko.

https://www.donostiakultura.eus

DK Haur Liburutegi Nagusia

# DOKUMENTAZIO GUNERA BISITA PROFESIONALAK

## DESKRIBAPENA

Hezkuntzako ikastetxeek Haur Liburuaren Dokumentazio Gunera bisita gidatuak eskatzen dituzte honen funtsak, funtzionamendua eta zerbitzuak ikasleek ezagutu ditzaten.

## HELBURUAK

- Irakurzaletasuna sustatzea.
- Dokumentazio Gunearen funtsa eta zerbitzuak ezagutzea.
- Bazkide berriak egitea: irakurketaren sustapenean bitartekariak izango direnak.
- Liburutegiaren erabilera bultzatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Hitzordua hartu behar da

Haur Liburutegi Nagusian, Fermín Calbetón 25

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

https://www.donostiakultura.eus

DK Haur Liburutegi Nagusia

# ESKOLA IRAKURKETA MINTEGIA IRAKASLEENTZAKO

## DESKRIBAPENA

Donostiako ikastetxeetan irakurketa sustatzeaz arduratzen diren irakasleekin gaia lantzeko mintegia.

## HELBURUAK

- Irakurketaren sustapena.
- Ikastetxe eta liburutegiaren arteko elkarlana indartzea.
- Liburu berriak eta gai ezberdinetakoak ezagutzeaz.
- Irakurketaz arduratzen diren irakasleen arteko esperientziak partekatzea.

Ikasturtean zehar.

Astearteak edo ostegunak.
Izena eman behar da

10:30-12:00

Haur Liburutegi Nagusian,
Fermín Calbetón 25

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

https://www.donostiakultura.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

DK Haur Liburutegi Nagusia

# MAILEGU KOLEKTIBOA ERAKUNDEEI

## DESKRIBAPENA

Ikastetxeek liburu sortak maileguan hartzeko aukera dute gai baten inguruan sakondu nahi dutenean ikasleekin gelan.

## HELBURUAK

- Ikastetxeetan gai jakin batzuei buruz sakontzeko aukera zabaldu.
- Irakurketa sustatu.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik larunbatera (Liburutegia irekita dagoen edozein egun)

16:00-20:30 (Astelehenetik ostiralera) ; 10:00-14:00 (Larunbatetan)

Haur Liburutegi Nagusian, Fermín Calbetón 25

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

https://www.donostiakultura.eus

https://www.donostiakultura.eus

DK Haur Liburutegi Nagusia

# BISITA GIDATUAK URGULL LIBURUTEGIRA

## DESKRIBAPENA

Donostiako ikastolek eta ikastetxeek Urgull liburutegiaren bisita gidatuak eskatzen dituzte honen funtzionamendua, arauak eta abantailak ikasleek ezagutu ditzaten eta honen erabilera bultzatzeko.

## HELBURUAK

- Urgull mendiko Liburutegia ezagutzera ematea, funtzionamendua eta antolaketa ezagutzeaz gain.
- Irakurketa sustatzea.
- Bazkide berriak egitea.

Apirila-maiatza

Astelehen eta ostiralak

10:00-10:45 eta 11:00-11:45.
Hitzordua hartu behar da

Urgull Mendiko Liburutegia

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

https://www.donostiakultura.eus

DK Haur Liburutegi Nagusia

# IRAKURKETA HAUR LIBURUTEGI NAGUSIAN

## DESKRIBAPENA

Ikasleek beraiek nahi duten liburuak aukeratu eta tarte batez liburutegian bertan irakurtzen dute, ondoren irakasleek ere ipuin bat kontatzen diete eta bukatzeko liburuak maileguan hartu dezakete.

## HELBURUAK

Liburuen eta liburutegien mundua haurrei hurbiltzea eta irakurketa, gozamenetik, ohiko jarduera izan dadin lortzea.

Ikasturtean zehar

Asteazkenak

10:15-11:00 eta 11:15-12:00.
Hitzordua hartu behar da

Haur Liburutegi Nagusian,
Fermín Calbetón 25

Doan

Larraitz Idarreta Garmendia
haurliburutegia@donostia.eus
943481999

https://www.donostiakultura.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN | donostia kultura

DK Lugaritz Kultur Etxea

# EUSKARA ZINEMA ARETOETARA LUGARITZ KULTUR ETXEAN

## DESKRIBAPENA

“Euskara zine aretoetara” lemapean Euskal Herriko ikastetxe orori esfera internazionaleko hainbat film euskaraz ikusi eta hauek material didaktikoen bitartez lantzeko aukera eskaintzen dio Tinkok. Programan parte hartzeko ikastetxeko arduradun edo irakasle batek egin behar du eskaera, ikusi nahi dituen filmak aukeratuz eta hainbat datu emanaz.

## HELBURUAK

1994. urtean sortua, TINKO EUSKARA ELKARTEA, euskara zinema aretoetan sarrarazi eta euskararen normalkuntza sustatzeko helburuarekin jaio zen.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizean

Lugaritz Kultur etxea

Doan

Jaione Galarraga
tinko@tinkoeuskara.eus
943310036

https://www.tinkoeuskara.eus/

DK Larrotxene Kultur Etxea

# IRAKURKETA LARROTXENE LIBURUTEGIAN

## DESKRIBAPENA

Lehen Hezkuntzako ikasleen bisitaldia liburutegira (bi eskoletako hiru talde: astelehen, astearte eta ostegunetan), non irakasleek ipuin bat kontatzen dieten eta gero liburutegiko liburuak hartzen dituzten.

## HELBURUAK

Liburuen eta liburutegien mundua haurrei hurbiltzea eta irakurketa haurtzarotik ohiko jarduera izan dadin lortzea.

Ikasturtean zehar

Astelehen, astearte eta ostegunetan

15:15 - 16:00

Larrotxene Liburutegian

Doan

Maite Puignau
maite_puignau@donostia.eus
943483402

DK Larrotxene Kultur Etxea

# INTXAURDOK

## DESKRIBAPENA

Intxaurdok proiektua 2024-2025 ikasturtean sortu zen, Intxaurrondoko Larrotxene Kultur Etxearen eta Donostiako Udalaren partaidetzarekin.

Aurtengo formatua trinkoa izango da, 4 astetan aurrera eramango dena, eta emaitza Intxaurrondoko auzoan kokatutako fikziozko labur bat izango da.

## HELBURUAK

Proiektu honen helburuak hainbat ziren: auzoko erakunde eta gazteen arteko harremana sendotu, auzoko baliabideak ezagutarazi edo azpi-auzoen harremana sendotu, besteak beste. Hori aurrera eramateko erabilitako tresna zinema izan zen, Larrotxene Bideoren bereizle dena.

Aurten ere, aipatutako helburu horiekin jarraitzeko, beste ikastetxe batekin elkarlana sustatu da, adinak eta formatua aldatuz. Horrela, auzoak duen aberastasuna beste ikuspuntu batetik ikusi daiteke eta eragile ezberdinen arteko harremana sortu.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizez edo arratsaldez

Ikastetxean, Larrotxene Kultur Etxean edo kalean

Doan

Iker Tolosa
iker_tolosa@donostia.eus
636140714

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

donostia kultura

DK Intxaurrondo Kultur Etxea

# IRAKURKETA INTXAURRONDO LIBURUTEGIAN

## DESKRIBAPENA

LHko (6-12 urte) ikasleen bisitaldia liburutegira (astean behin, LHko ziklo bat, bi talde), non haurrek aukeratutako liburuak modu libre eta atseginean irakurtzen dituzten.

## HELBURUAK

Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea; baita auzoak eskaintzen digun liburutegi-zerbitzua erabiltzea ere.

Ikasturtean zehar

EGUNAK: Astean behin

15:10 - 16:10

Intxaurrondo Liburutegian

Doan

Maite Puignau
maite_puignau@donostia.eus
943483402

DK Intxaurrondo Kultur Etxea

# ERAKUSTARETORA BISITA ETA TAILERRA

## DESKRIBAPENA

Programatutako erakusketarekin lotutako bisita gidatua eta tailer edo bitartekaritza.

## HELBURUAK

Sorkuntza prozesuak gertutik ezagutu, praktikatik, eta horiekin lotutako gaien inguruko hausnarketa kritikoa piztu (emakumea eta kirola, gorputz disidenteak, ijitu herria. Artistekin lotura zuzena: Mendi Urruzuno, Nagore Legarreta,...

Erakusketaren arabera

Erakusketaren arabera

Erakusketaren arabera

Intxaurrondo Kultur Etxean

Doan

Iker Tolosa
iker_tolosa@donostia.eus
636140714

DK Intxaurrondo Kultur Etxea

# ETXEKOLANDA

## DESKRIBAPENA

Intxaurrondo Kultur Etxeko baratza baliatuta naturarekin eta baratza munduaren inguruko trebakuntza, Cristina Enea Fundazioarekin elkarlanean.

## HELBURUAK

Baratzaren zaintzaren bidez, bizitza zikloa, elikadura osasuntsua, natura eta lurrarekin harreman naturala sustatzea.

Ikasturtean zehar

Astearte edo ostegunetan

9:30-12:30

Intxaurrondo Kultur Etxean

Doan

Iker Tolosa
iker_tolosa@donostia.eus
636140714

# BISITA GIDATUAK LIBURUTEGIRA

## DESKRIBAPENA

Auzoko ikastolak eta ikastetxeak liburutegiaren bisita gidatuak eskatzen dituzte honen funtzionamendua, arauak eta abantailak ikasleek ezagutu ditzaten eta honen erabilera bultzatzeko.

LH-ko Ikasleek liburutegiaren guneak ezagutuko dituzte, mailegu eta itzulketa zerbitzuaren funtzionamendua ikasiko dute, eta erabilera-arau nagusiak eta jokabide egokiak barneratuko dituzte. Gainera, dokumentuak nola antolatzen diren eta bilaketa errazak nola egin azalduko zaie. Jarduera amaitzeko, haurrek aukeratutako liburuak modu libre eta atseginean irakurriko dituzte.

## HELBURUAK

- Txikitatik irakurzaletasuna sustatzea, baita auzoak eskaintzen digun liburutegi-zerbitzua erabiltzea ere.
- Liburutegi publikoaren oinarrizko funtzionamendua ezagutzea.
- Eskaintzen dituen gune eta zerbitzu desberdinak identifikatzea.
- Adinari eta interesei egokitutako dokumentuak aurkitzen ikastea.
- Irakurzaletasuna sustatzea eta informazioa bilatzeko autonomia garatzea.
- Dokumentuak zaintzea eta espazio komunen arauak errespetatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera (liburutegia irekita dagoen edozein eguna)

Goizez

Auzoko liburutegietan

Doan

**DK Lugaritz Kultur Etxea**
Ana Ruiz, Liburuzaina
943483836 / 943310780

**DK Casares-Tomasene Kultur Etxea**
tomaseneliburutegia@donostia.eus
943357516

**DK Larratxo Kultur Etxea**
tomaseneliburutegia@donostia.eus
943357516

**DK Okendo Kultur Etxea**
Elena Aristondo
okendoliburutegia@gmail.com
943297894

**DK Loiola Kultur Etxea**
loiolakulturetxea@donostia.eus
943454605

**DK Aiete Kultur Etxea**
Esperanza Ijurra
esperanza_ijurra@donostia.eus
943481921

**DK Ernest Lluch Kultur Etxea**
Maite Sos, arduraduna
maite_sos@donostia.eus
943481867

**DK Egia Kultur Etxea**
943291514

**DK Intxaurrondo Kultur Etxea**
Maite Puignau
maite_puignau@donostia.eus
943483402

# DONOSTIA INNOVATION CHALLENGE

## DESKRIBAPENA

Donostia Innovation Challenge hiriko gazteen berrikuntzarekin lotutako gaitasunak entrenatzeko programa bat da. Hiriko beharretan oinarritutako erronken bidez lan egin nahi dugu hirian berrikuntza aktibatzeko, bertan bizi diren gazteak inplikatuz.

Proiektu bat ikuspegi enpresarial eta tekniko batetik diseinatzen eta kudeatzen ikastea da helburua, teknologia berriak barne hartzen dituzten soluzioetan oinarrituta, eta horretarako hiriko enpresen edo ikerketa zentruen mentorizazioa izango dute. Proiektu bat bere osotasunean lantzen da: aurrekontu bat kudeatuz, bezeroaren lekuan jarriz eta, aldi berean, bizitzako esparru guztietan umiltasuna, enpatia, kemena eta moldagarritasuna bezalako balioen garrantzia barneratuz.

## HELBURUAK

Programaren helburua da ikasleek hiri erronka batean oinarritutako berrikuntza-proiektu bat diseinatzea eta garatzea, honako etapa hauek eginez: PLANGINTZA, DISEINUA, GAUZATZEA, JARRAIPENA, EBALUAZIOA.

Prozesuan zehar, proiektu berritzaile baten esparruan garapen pertsonalerako funtsezkotzat jotzen diren gai hauen inguruan lan egiten da: TEKNOLOGIA, EKINTZAILETZA ETA ENPRESEN KUDEAKETA, DISEINUA ETA SORMENA, GAITASUN PERTSONALAK.

Iraila, urria, azaroa, abendua eta urtarrila

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean (posible da beste lekuetan)

Doan

Alazne Arocena
alazne_arocena@donostia.eus

https://campus.fomentosansebastian.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

Donostia Kirola

# IGERIKETA KANPAINA

## DESKRIBAPENA

Igeriketa hastapena LH 1 eta 2. mailako haurrei zuzenduta.

Ikasturtean zehar 20 igeriketa saio eskaintzen zaizkie Donostiako maila horietako ikasleei, eskola orduetan.

## HELBURUAK

Jardueraren helburu nagusiak dira:

1. Uretan moldatzeko oinarrizko gaitasunak garatzea.
2. Istripuak prebenitzea eta segurtasuna sustatzea.
3. Ohitura osasungarriak bultzatzea.
4. Garapen integrala sustatzea.
5. Kirolaren bidez balio hezitzaileak transmititzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goiz eta arratsaldez, eskola orduetan

Donostiako igerilekuetan

Doan

Mikel López
miguel_lopez@donostia.eus
943481850

donostiakirola.eus

# BBB IKASTETXEETAN "BIZITZA BAT SALBATZEA ZURE ESKU DAGO"

## DESKRIBAPENA

Jarduera DBH 4. mailako ikasleei bideratuta dago.

Ikasleei oinarrizko bihotz-birika bizkortze teknikak eta kanpo desfibrilagailu automatikoa erabiltzen erakustea bihotz geldialdi baten aurrean zer egin dezaketen jakiteko. BBBa denon ardura da eta ez soilik osasun langileena.

## HELBURUAK

Jardueraren helburu nagusiak dira:

- Egoera detektatu.
- Larrialdi zerbitzuak aktibatzea 112ra deituz.
- Bihotz masajea ematen hastea.
- Ahal bada desfibriladorea lokalizatu eta erabiltzea.
- Larrialdi zerbitzuak iritsi arte itxarotea.

Ikastaroak otsaila-maiatza bitartean

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Sorkunde Jaca
sorkunde_jaca@donostia.eus

Aitziber Etxezarreta
aitziber_etxezarreta@donosia.eus

**OHARRA:** Gu jartzen gara harremanetan eskolekin eta hortik aurrera 15 eguneko epea irekitzen dugu izena emateko.

# OSASUN DIGITALA

## DESKRIBAPENA

Osasunerako hezkuntzaren oinarriak kontuan hartuta, hezkuntzaren esparrutik indartu daitezkeen alderdi nagusiak hauek dira: Teknologia digitalen arriskuei buruzko egiazko informazioa eskaintzea, erabiltzeko eta ez erabiltzeko arrazoiak, erabilera egokia eta erabileren ondorioak. Bizitzarako trebetasunak garatzea, batez ere gaitasun emozionalekin zerikusia dutenak.

LH5, LH6 eta DBH1 mailako ikasleen kontsumoa erabileren inguruko galdetegia. Gela bakoitzarekin 15 minutu. Ikasleekin eskuhartzeak. Talde bakoitzarekin ordu bateko hiru saio. Irakasleekin ordu bateko deboluzio bilera bat (beharrezkoa denean, hau luzatzeko posibilitatea dago). Familiei zuzendutako formazio- informazio saioa. Ordu eta erdiko saio bat.

## HELBURUAK

Teknologia digitalen inguruan gazteek dituzten, jokabide eta sinesmenekin lan egitea.

Teknologia digitalen arrisku-pertzepzioa handitzea.

Erabaki osasungarriak hartzeko, gizartearen eta taldearen presioari aurre egiteko eta eraginkortasunez komunikatzeko tresnak eskaintzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Estibaliz Urreaga Laffage
estibaliz_urreaga@donostia.eus
943474146

# SUBSTANTZIEKIN LOTURIKO ADIKZIOEN PREBENTZIOA

## DESKRIBAPENA

Esku-hartzea erabakitzen den mailako gela bakoitzarekin 3 ordukoa izango da bi saioetan banatuta. Horretarako ikastetxeko orientatzailearekin elkar lanean zehaztuko dira saio hauek burutzeko egunak eta orduak, antolakuntza bi alderdientzat ahalik eta egokiena izatea bermatuz. Ikasleekin saioak burutu ostean, gurasoei ere ordu eta erdiko saio bat eskaintzeko aukera dago, ikastetxearen eta gurasoen beraien interesaren arabera. Saio hauen helburua, ikasleekin gelan landutako gurasoei jakinaraztea izango litzateke, ikusi diren kontsumoen inguruko datuak eskainiz, eta beraiek familia edo guraso bezala prebentzioa sustatzeko egin dezaketenaren inguruko pauta zehatzak eskainiz.

## HELBURUAK

- Adikzioen aurrean babes faktoreak sustatzea.
- Bizimodu osasuntsuak bultzatzea.
- Kontsumitzen hasteko adina atzeratzea.
- Kontsumoak dauden kasuetan arriskuak murriztea.

Ikasturtean zehar

EGUNAK
Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Estibaliz Urreaga Laffage
estibaliz_urreaga@donostia.eus
943474146

# ZEUK AUKERATU. GAZTEEN OSASUN MENTALA ZAINTZEKO PROGRAMA

## DESKRIBAPENA

ZEUK AUKERATU haur, nerabe eta gazteen buru osasuna zaintzeko prebentzio eta esku-hartze programa bat da.

Bi arlo lantzen dira:

- Prebentzioa eta sentsibilizazioa: 10 eta 18 urte bitarteko haur, nerabe eta gazteentzako saioak antolatzen dira ikastetxeetan, baita guraso eta irakasleentzat ere.
- Esku-hartzea: buru osasun arazoak dituzten gazteei laguntza eskaintzen zaie.

## HELBURUAK

Helburua da babes-faktoreak indartzea eta ahalik eta gehien murriztea ondoez emozionalaren arrisku-faktoreak. Ondoez emozional horrek konnotazio eta sintoma ugari ditu, eta, denboran zehar irauten dutenean, estresa sorrarazten dute pertsonarengan eta galarazi egiten dute normal funtzionatzea. Nahasmendu horrek prozesu afektibo eta kognitiboei, aldarteari, pentsamenduari eta portaerari eragiten die.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Estibaliz Urreaga Laffage
estibaliz_urreaga@donostia.eus
943474146

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

cristina enea FUNDAZIOA

# DONOSTIAKO ESKOLA BARATZE SAREA

## DESKRIBAPENA

Donostiako Eskola Baratze Sareak ikastetxeetan identifikatutako gabezia edo behar bati erantzun nahi dio, hain zuzen ere, baratze bat martxan jartzeko aukera zein jakintza gabeziari erantzun nahi dio eskola proiektu honek. Sare honen bidez, ikastetxeek zein irakasleek oinarrizko baliabide zein ezagutzak jaso ahal izango ditu, ikasleekin lanketa egin eta baratzea baliabide didaktiko bezala ulertu eta erabili ahal izateko.

## HELBURUAK

Donostiako eskolei agroekologian sakondu eta baliabide pedagokiko bezela ulertzeko aukera ematea, aholkularitza eta formakuntza ezberdinak eskainiaz, beharren arabera egokituta. Irakaslegoaren formakuntzan sakontzeak, baliabide didaktiko / pedagogiko bezala ulertu zein erabiltzea du helburu.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Ikastetxean

Doan

Mateo Regla
mateo_regla@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

# ESKOLAN KONPOSTA

## DESKRIBAPENA

Eskolan Konposta eskola programak ikastetxean bertan sortzen den hondakin organikoa bertan kudeatzea bilatzen du, eskolei zein eskola komunitateari beharrezko baliabide didaktiko zein materialak eskeiniaz (saioak, sentsibilizazio saioak eta tailerrak, konpostagailuak, eta abar...).

## HELBURUAK

Helburu nagusia eskolak eta eskola komunitateak eskolan sortzen den hondakin organikoa eskolan bertan kudeatzea da, ikasleek hondakin bezala ikusi beharrean, konpost / ongarri bezala baloratu eta baratze zein berdeguneetan ongarritzeko erabiltzeko.

Ikasturtean zehar

EGUNAK

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Ikastetxean

Doan

Mateo Regla
mateo_regla@donostia.eus
943453526

https://www.eskolankonposta.eus/

# ETXEKOLANDA

## DESKRIBAPENA

Donostia Kulturak dituen udal ekipamenduetako (kulturetxeak) baratzeak aprobetxatzea baliabide hori ez duten eskola zein kolektibo ezberdinei agroekologian sakondu eta baratzea baliabide pedagokiko / didaktiko bezala ulertu eta lantzeko aukera izan dezaten. Eskola komunitateari zuzenduriko jarduerak dira, nahiz eta gaur egun talde / eragile ezberdinei zabaltzen zaien aukera (zaurgarritasun egoeran dauden taldeei batez ere) baratze "terapeutiko" moduan ulertuaz saioak.

## HELBURUAK

Eskolan baratzea lantzeko aukera ez duten ikastetxeei (espazio, baliabide falta-gatik) baratzea lantzeko aukera ematea Donostia Kulturaren ekipamenduak erabiliaz.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Kulturetxeetan

Doan

Mateo Regla
mateo_regla@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN

cristina enea FUNDAZIOA

# ONDAKIN

## DESKRIBAPENA

Eskoletan bertan sortzen diren hondakinak ongi eta modu egokian kudeatzea bultzatzea bilatzen duen eskola programa. Baliabide, formakuntza, zein jarraipenak eskaintzen dituen eskola proiektu honek jasangarritasun zein ingurumen hezkuntzan pausoak ematea bilatzen du.

## HELBURUAK

Eskoletan ematen den hondakinen kudeaketan hobekuntzak eman, erraztasunak ematea eta sentsibilizazioan sakontzea. Eskola komunitate guztia (irakaslea, gurasoak, eskolako langileak eta ikaslea) hondakinen kudeaketa egokian inplikatzea.

Ikasturtean zehar

EGUNAK: Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Ikastetxean

Doan

Mateo Regla
mateo_regla@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

# CRISTINA ENEAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

## DESKRIBAPENA

Ikasmaila guztietara egokituak dauden tailer didaktikoak eta Cristina Eneako parketik eginiko ibilaldi gidatuak biltzen dira bertan. Guztiak, ikastetxeetan egiten den zeregin hezitzailearen osagarri gisa diseinatuak eta hezkuntza baliabide zehatzez hornituak.

## HELBURUAK

Belaunaldi berriak ingurumenarekiko errespetuan hezteko jarduera osagarriak. Geletan landutakoaren lagungarri, edota gertuko gune naturalak ezagutu eta gozatzeko aukera emanez.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Cristina Eneako Ingurumen Baliabideen Etxean

Doan

Uxua Arana
uxua_arana@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

# ULIAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

## DESKRIBAPENA

Uliako interpretazio zentroan bertako ondare naturala, historia eta geologia ezagutzeko eskaintzen den aktibitate sorta bat da. Ikastetxeei eta elkarteei eskaintzen zaie eta adin desberdinetarako zuzenduriko ekintzak biltzen ditu.

## HELBURUAK

Parte hartzaileei natura behatu, ezagutu eta zaintzeko baliabideak eskaintzea, eta bereziki Ulia mendiaren balioetan oinarrituz naturarekiko errespetuzko jarrerak sustatzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Uliako Interpretazio Zentroan

Doan

Oihana Orkolaga
oihana_orkolaga@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

cristina enea
FUNDAZIOA

# SANTA KLARA UHARTEKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

## DESKRIBAPENA

Cristina Enea Fundazioak, hezkuntza-eskaintza honetan zehazten diren jarduera didaktikoen bidez, ikastetxeei hezkuntza-tresna sorta bat eskaini nahi die, Santa Klara uhartea hobeto ezagutzeko eta bertan gozatzeko. Jarduera guztiak euskal curriculumaren arabera diseinatu dira, hezkuntza-osagarri gisa balio izan dezaten irakasleen zereginerako, eta metodologiak eta helburuak ikasleen heziketa-zikloetara egokituta daude.

## HELBURUAK

Formakuntzan, kontzientziazioan, sentsibilizazioan eta orokorrean naturarekin harremanetan sakontzean oinarritutako jarduera / ibilbide didaktikoak. Natura eta ingurumen hezkuntza hartzaileei hurbiltzea bilatzen duena.

Maiatza-ekaina
Iraila-urria

EGUNAK
Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Santa Klara uhartean

Doan

Uxua Arana
uxua_arana@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

# PLANETA DANTZAN

## DESKRIBAPENA

Hezkuntza-programa hau arteaz baliatzen da, pertsonak liluratu eta haienganana hurbiltzeko, ikasleak hausnartzera eta ekintzara bultzatzeko. Malandain Balletaren errepertorioko obretatik abiatuta, Planeta Dantzan ekimenak ingurumen-gaiak jorratzen ditu programa aitzindari eta berritzaile batean, ikasleak ingurumenaren ezagutzan eta babesean sentsibilizatzeko. Ezagutza zientifikoak eta artistikoak partekatuz eta arrazionaltasuna eta emozionala lotuz. Ingurumen- hezkuntzako eta arte-sorkuntzako eragileen arteko lankidetza bereziagatik nabarmentzen da proiektu hau.

## HELBURUAK

Ikasleak ingurumenaren ezagutzan eta babesean sentsibilizatzea, ezagutza zientifikoak eta artistikoak partekatuz.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Uxua Arana
uxua_arana@donostia.eus
943453526

https://www.planetadantzan.eu/eu/

# KOFRADIA-ITSAS ETXEKO HEZKUNTZA ESKAINTZA

## DESKRIBAPENA

Eskola eskaintza berri hau diseinatu eta abian jarrita, Cristina Enea Fundazioak eta Kofradia-Itsas Etxeak ikastetxeen parte-hartzea bultzatu nahi dute, jarduera didaktiko berri eta berritzaileen bitartez. Dibulgazio pedagogikoko ekimen hau Euskadiko baxurako arrantzaren sektorea egiten ari den apustuaren barruan kokatzen da, sektore hori gazteenei hurbiltzeko eta, horrela, sektoreak aurre egin behar dion belaunaldi-erreleboaren erronka arintzeko.

## HELBURUAK

Baxurako arrantzaren sektorea eta lana zein ingurumen hezkuntzako balioen sustapena eta ezagutza zabaltzea bilatzen duen programa, modu ludiko eta parte hartzaile batean.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Kofradia Itsas Etxean

Doan

Uxua Arana
uxua_arana@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

# NEKAZAL KULTURA ESKOLETARA

## DESKRIBAPENA

Ekimen desberdinen bitartez, landa eremua eta ikastetxearen arteko harremana sustatzen da. Haziak ardatz bezala hartuz baserrietan gordetzen den ondare kulturala balioan jarri eta gaur egungo bizimoduan duen eragina lantzen da, esate baterako hizkuntzan edo elikaduran.

## HELBURUAK

Azken urteetan gero eta nabarmenagoa den landa eremua eta hiriaren arteko deskonexioa murrizteko ekimenak bultzatzea eta eskolako baratzean lantzeko proposamen osagarriak egitea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola ordutegia

Ikastetxean

Doan

Oihana Orkolaga
oihana_orkolaga@donostia.eus
943453526

https://www.cristinaenea.eus

# BIDE SEGURTASUN FORMAKUNTZAK

## DESKRIBAPENA

Kurtso hasieran eskeintza irekia egiten zaie eskoleei emailaren bidez. LH6tik DBH 4ra mailararen arabera landutako gaiak aldatzen dira, arriskuak, ardura, araudia...eta horrela joaten gara saioak agendatzen.

Jarduera eskatzerakoan lehentasuna izango dute Donostiako Eskola Mugikortasuneko Ekintza Plana inplementatzeko Kontseilu Ekintza Planean dauden ikastetxeak.

## HELBURUAK

Eskola Mugikortasunaren Ekintza Plana Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planetik datorren neurria da, eskola-mugikortasuna hobetzera bideratutako neurri gisa.

Mugikortasunari buruzko prestakuntza-jardunaldia mugikortasunak gaur egun hirian dituen ekintza-ildo guztietan oinarritzen da hiriko oinezkoen segurtasuna bermatzeko eta hiriak behar dituen aldaketak bultzatzeko, mugikortasun-ohiturak aldatuz.

Ikasturtean zehar

EGUNAK Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Carmen Oiarbide
mcarmen_oiarbide@donostia.eus
943483350

# ESKOLA BIDEA

## DESKRIBAPENA

Eskola Bidea haurren joan-etorriak hobetzeaz arduratzen da, gure hirian ahalik eta seguruena izan daitezen. Ibilbide nagusia egunero ikastetxera egiten den ibilbidea da, eta horren gainean jarduten da.

Eskola Bidea Mugikortasun sailak eskola-mugikortasunaz lantzen duen zeharkako lan-ildo oso bat da, besteak beste, Oinbusa eta Oinez Eskolara jarduerak jasotzen dituena.

## HELBURUAK

Eskola Bidea izeneko ekimenaren helburua, haurrak eskolara bide segurutik, oinez eta nagusien laguntzarik gabe joan ahal izatea da, mugikortasun mota hori sustatuz eta erraztuz. Ideia horretatik abiatuz, ikastetxe inguruko arazo nagusiak elkarlanean aztertzen eta zehazten ari gara, hala nola, sarbideena, segurtasunarena eta gure eguneroko ibil ohituretatik eratorritakoak.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizez, arratsaldez

Ikastetxean

Doan

Carmen Oiarbide
mcarmen_oiarbide@donostia.eus
943483350

# OINBUSA

## DESKRIBAPENA

Oinbusa egistamoan kartoizko autobus bat diseinatzen da, giza autobus ibiltari bat, eskola-umeak beren ikastetxera garaiz eta modu osasuntsu eta jasangarrian irits daitezen goizero. Era berean, oso modu dibertigarria izan nahi du auzoko familiei eskolara joateko deia egiteko momentuan.

## HELBURUAK

Oinbusa izeneko ekitzaren helburu orokorra umeak eskolara oinez joatea da, bakarrik zein lagunekin eta aldi berean auzoko familiei eskolara joateko deia egitea, hiri bizigarriaren balioak landu nahi dira.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Eskola orduetan

Ikastetxean

Doan

Carmen Oiarbide
mcarmen_oiarbide@donostia.eus
943483350

# OINEZ ESKOLARA

## DESKRIBAPENA

Haurrak oinez joaten dira eskolara, bakarrik zein lagunekin, aldez aurretik ezarrita eta toki arriskutsuetan zainduta dagoen ibilbide batetik. Bidean zehar kartelak jartzen dira, umeek ikusiko dute bidegurutzeetan nondik jo behar duten eta nondik komeni den kalea zeharkatzea. Toki arriskutsuetan nagusiak (udaltzainak, irakasleak edo gurasoak) jarriko dira. Ondoren, ebaluzio fitxa bana eman eta gonbidatzen zaie jasotzera zer ez duten gustuko ibilbidetik.

## HELBURUAK

Oinez Eskolara programaren helburu orokorra eskola umeak oinez ibil daitezen, mugimendu-autonomia izan dezaten bultzatzea da, eta horretarako, kaleak hobetzeko prozesuak zabaltzen dira. Bestalde, umeek elkarrekin harremanak izateko toki seguruak izan daitezen eta honela oinez nahiz modu jasangarrietan ibiltzeak dituen abantailak erakustea dira helburu bereziak.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizez

Ikastetxean

Doan

Carmen Oiarbide
mcarmen_oiarbide@donostia.eus
943483350

DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Mugikortasuna
Movilidad

# DBUS EZAGUTZEN

## DESKRIBAPENA

DBUSen kotxe-tokiak bisitatu eta ezagutu hiriko garraio publiko kolektiboaren eguneroko funtzionamendua, enpresaren kudeaketarako atal ezberdinak eta zerbitzua emateko dituen autobusak.

## HELBURUAK

Jarduerak haurrek hiriko garraio publiko kolektiboaren funtzionamendua bertatik ezagutzeaz gain, garraio publiko zen pribatuaren erabilera arduratsua egiten ikastea eta honek hiritarren bizi kalitatean duen inpaktuaz jabetzea du helburu nagusi.

Otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina, iraila, urria, azaroa

Astelehenetik ostiralera eta hilabetean behin

10:00etatik 12:00etara

DBUS-en instalazioetan, Fernando Sasiain, 7

Doan

Dbus Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua
info@dbus.eus
943000200
900840146 (doakoa)

https://dbus.eus

# DBUSEN GABONETAKO MARRAZKI LEHIAKETA, "DBUS ETA GABONAK"

## DESKRIBAPENA

Dbus, hiriko autobusak eta Gabon jaiak uztartzen dituen marrazki lehiaketa.

Parte hartzailea 13 urtetik beherako edozein haur izan daiteke eta gai libreko marrazki bat egin beharko du. Baldintza bakarra Gabonen inguruko ideia bat azaltzea izango da, autobusarekin erlazionatuta.

## HELBURUAK

Jardueraren helburua haurrek hiri garraioa, jasangarritasuna eta euren ingurune naturalaren inguruan hausnartzea da, eguneroko ohiturak eta erabakiak mahai gainean jarriz. Gabon giroa aprobetxatuz, haurrek euren sormena erabiliz garraio publikoak euren bizitzan eta hirian zein leku duen adierazi behar dute. Lehiaketa ikastetxeetan garraioaren gaia jorratzeko erabiltzen da.

Urria, azaroa

Nahi duten eguna, libre da

Ikastetxe barruan edo kanpoan, librea da

Ikastetxean

Doan

Dbus Erabiltzailearen Arreta Zerbitzua
info@dbus.eus
943000200
900840146 (doakoa)

www.dbus.eus

# KRIMINOLOGIAKO IKASLEEN PRAKTIKARAKO ESPARRUA

## DESKRIBAPENA

Udaltzaingoaren barruan, gai interesgarriak aukeratu eta gero, EHUko kriminologiako ikasle batzuk praktikak egiten gidatzen ditugu. Datorren urtean 4 izango dira, bi epetan.

## HELBURUAK

Kriminologia ikasketetan jasotzen duten ezagutza Udaltzaingoan aplikatzea.

Urtarrila, otsaila, martxoa, apirila, maiatza, ekaina

Astelehenetik ostiralera

Goizez

Komisaldegian.
Morlans biribilgunea, 1

Doan

Jon Udakiola
jon_udakiola@donostia.eus

# UDALTZAINAK ETA FORMAKUNTZA

## DESKRIBAPENA

Udaltzain izateko behar den formakuntzaz hitz egingo da, eta bertara hurbilduko den udaltzainaren ibilbide akademiko konkretua ezagutu nahi dutela ere esan dute. Ondoren, ikasleek dituzten galderei erantzungo zaie.

## HELBURUAK

Ikasleak udaltzaingora hurbildu nahi dute, eta udaltzain izan nahi duten ikasleei zer ikasi beharko luketen argitu nahi zaie. Horretarako, udaltzain bat eskolara hurbilduko da, eta bere ibilbide akademikoaz hitz egingo du. Ikasleek lanak zertan datzan ere jakin nahi dute, eta lan baldintzak zeintzuk diren, eta hori ere argituko zaie, ondoren sortuko diren galderekin batera.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizez

Ikastetxean

Doan

Jon Udakiola
jon_udakiola@donostia.eus

# UDALTZAINGOAREN KOMISALDEGIA EZAGUTU EZAZU

## DESKRIBAPENA

Jarduerak komisaldegiko instalazioak eta funtzionamendua ezagutzean datza. Zuzendariak aurkezpen labur bat egiten du eta ondoren bisita egiten dute komisaldegiko hainbat gunetara, irratira, emakumeen indarkeriaren aurkako sailera, inteligentzia sailera, ikerketa sailera, ibilgailuetara (motoak, autoak eta bizikletak) eta abar...

## HELBURUAK

Jardueraren helburua Udaltzaingoan egiten den lana ezagutzera ematea izan zen, eta Udaltzaingoa hiritarrei hurbiltzea.

Ikasturtean zehar

Astelehenetik ostiralera

Goizez

Komisaldegian.
Morlans biribilgunea, 1

Doan

Jon Udakiola
jon_udakiola@donostia.eus

# ESKOLEN BISITAK
# SUHILTZAILEEN PARKERA

## DESKRIBAPENA

LH3-6 tarteko ikasleei eskeintzen zaien Parkea ezagutzeko aukera da. Ikastetxeei begira egiten dugun ekintza sua eta emergentzizko arlo prebentiboari dago bideratua. Suaren inguruko oinarrizko aholkuak dira, eta horien ondorioak, hala nola sute bat saihestea, sutea gertatuz gero jardutea, 112 zerbitzuaren kudeaketa eta Donostiako suhiltzaileen zerbitzuaren ingurukoak irakasten zaie.

Bisitak 90 minutuko iraupena du. Emergentziei buruzko aholkuak jasotzeko 2 bideoen proiekzioa egiten da Parkeko Akademia gelan; Komunikazioen Zentrala erakusten zaie 112ko deien kudeaketa nola den ikusteko; Suhiltzaile baten trajea nola den erakutsi; eta azkenik ibilgailu eta maniobren patioa erakusten zaie.

## HELBURUAK

Emergentzia bat sortzen denean (sutea, istripua...) nola ekin beharko genukeen jakin eta gogoraztea. SOS DEIAK 112 nola funtzionatzen duen eta suhiltzaileen zerbitzutik nola bideratzen den jakitea. Sute baten aurrean nola jardun behar dugun jakitea.

Ikasturtean zehar

Asteartea edo osteguna

Goizez

Donostiako Suhiltzaileen Parkea
Otxoki ps 100 (Intxaurrondo)

Doan

Gorka Goiatxe Pikabea
gorka_goiatxe@donostia.eus
626804791

# DONOSTIAKO SUHILTZAILEEN PARKEKO ATE IREKIEN EGUNA

## DESKRIBAPENA

Martxoaren 8a, San Juan de Dios eguna, suhiltzaileen zaindariaren eguna da 1953tik. Egun horren inguruko larunbatean (2026ean martxoaren 7ko larunbatean), gure Patroiaren eguna gogoratzeko, Ate Irekien eguna antolatzen da Donostiako Suhiltzaile Parkean (Garbera, Otxoki pasealekua 100).

## HELBURUAK

Suhiltzaileek egiten duten lana aurkeztu eta sustatu. Jardunaldian zehar, haur eta helduentzat, dibulgazio eta prebentzio-tailerrak antolatzen dira larrialdietan nola jardun behar den azaltzeko eta gure lanbidea pixka bat gehiago ezagutzeko hainbat maniobra egiten dira. Ibilgailuen, babes jantzien eta ekipoen erakusketa ere egiten da.

Martxoaren 8aren inguruko larunbata izaten da

Larunbata

10:00-13:00

Donostiako Suhiltzaileen Parkea
Otxoki ps 100 (Intxaurrondo)

Doan

Peru Mac Gragh
943483500

**OHARRA:** Deialdia prentsa ohar baten bitartez egiten da eta hiritar guztiei irekia dago. Kontaktua: suhiltzaileak@donostia.eus

# POLLOEKO SEKRETUAK

## DESKRIBAPENA

Hilerriaren bisita gidatua era atsegin batean. Bertan artea, historia eta donostiarrentzat ezezagunak diren bitxikeri asko aurkitzen dira. Ibilaldi honetan beldurrak ez du kabidarik.

Ibilaldi kulturala - hilerriak berezkoa duen aberastasun artistiko eta arkitektonikoa jorratzeaz gain, bere xehetasun historikoak eta bertan lurperatutako pertsonai ospetsuenen hilobiak ere ezagutaraztea eman.

## HELBURUAK

Jardueraren helburu nagusiak dira:

- Ikastolei zuzendutako ibiladia.
- Zibismoa bultzatu.
- Historia/Arte lekua dela erakutsi.
- Hiriarentzat duen garrantzia jorratu.
- Hilerria gazteriari gerturatu.

Urria, azaroa

EGUNAK: Astelehenetik ostiralera

Goizez eskola orduetan

Polloe hilerria

Doan

Gorka Rueda
gorka_rueda@donostia.eus
943483539

Amaia Zubilaga
amaia_zubillaga@donostia.eus
943483537

Kanpoko enpresaren datua:
info@ohmywalk.com

"Hiri hezitzailerako eskubidea pertsona guztiek hezkuntzako duten oinarrizko eskubidearen hedatze gisa proposatzen da. Hirian bizi diren pertsona guztiek eskubidea izango dute, askatasun eta berdintasun- baldintzetan, hirian eskaintzen diren prestakuntza, entretenimendu eta garapen pertsonale-rako bitarteko eta aukerez gozatzeko. Hiri hezitzaileak etengabe berritzen du bere konpromisoa bertako biztanleak bizitzan zehar alderdi guztietan hezteko."

Hiri Hezitzaileen gutunetik




*Katalogoa aldatu edo eguneratu egin daiteke editatu eta inprimatu ondoren.

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Hezkuntza

2026ko online katalogoa